

ETIOPIA UTOPIA 01 KOADERNOA:

KONTSUMORAKO URA ETA ESKU-HARTZE SOZIO-SANITARIOA TIGRAYN, ETIOPIA

KOKAPEN GEOGRAFIKOA ETA TESTUINGURU SOZIALA

Etiopia Afrikaren ekialdeko eremuan kokatuta dago, zehazki, "Afrikako Adarra" esaten zion horretan, Eritrea, Djibuti eta Somaliarekin batera. Etiopia da eremu horretako herrialde handiena: 1.104.300 km² ditu (Espainiaren azaleraren bikoitza baino zertxobait handixeagoa), eta Afrikako populazio handieneko bigarren herrialdea da, 109 milioi biztanle dituenez.

Etiopia goitik behera zeharkatzen du Rift haranak eta, hainbat puntutan itsas mailatik behera dagoen arren,



geografian mendigune etiopiarra da nagusi; hori dela eta, lurralde gehiena mendiz eta goi-lautadaz osatuta dago, itsas mailaren gaineko batez besteko altuera 1.500 metro izanik eta, zenbait puntutan, 4.900 metroko altuerara ere iristen da.

IDH edo Giza Garapenaren Indizeari dagokionez, 189tik **173.** postuan dago, 0,457 punturekin, hau da, planeta osoko giza garapenaren indize txikiena duten 20 herrialdeetako bat da, nahiz eta azken bi hamarkadetan arian-arian hazi den.

Herritar gehienak **landa eremuetan (% 79)** bizi dira oraindik, baina azken urteotan barne migrazioa gertatzen ari da landa eremu horietatik hirietara, aukera berrien bila. Bestalde, hirietako biztanleriaren hazkunde horren ondorioz, langabezia tasak gora egin du, batik bat, gazteen artean.

Etiopiako **hazkunde demografikoaren tasa % 2,5** da (Espainiakoa % 0,2). Zifra handia den arren, azken urteotan jaisten ari da pixkanaka, emakume bakoitzak izaten dituen seme-alaben kopurua ere gutxitu den heinean; 2016ko datuen arabera, 4,2 seme-alaba. Jaiotzean, bizi-itxaropena **62,2 urte** da, eta haurren heriotza-tasa, berriaz, **51,1 heriotza 1.000** jaiotza bakoitzeko.

Hezkuntzari dagokionez, 15 urtetik gorako biztanleen alfabetatze-tasa **% 57,1 da gizonen kasuan** eta **% 41,11 emakumeen kasuan**.

TIGRAY ESKUALDEA

Etiopia 9 eskualdez osatuta dago, eta Tigray da iparraldean kokatuta dagoena. Eskualde horretan, gutxi gorabehera **8,9 milioi** pertsona bizi dira eta, mendigune etiopiar bete-betean dagoenez, itsas mailaren gaineko batez besteko altuera 2.000 metro da.

Biztanle gehienak, herrialdearen gainerakoan bezalaxe, nekazariak eta abeltzainak dira gehienbat; iraupeneko nekazaritza egiten dute eta, kasu askotan, ez dira elikagai segurtasunera ere iristen.

Eskualde horretan, **landa lanak eskuz egiten dira**, nekazaritzaren mekanizazio maila oso eskasa da eta familia bakoitzeko laborantzarako azalera ez da hektarea-erdira iristen.

Tigray eskualde erdiaridua da, lurraldea oso menditsua da eta elikagaiak landatzeko toki gutxi dago. Laborantzarako bi gune nagusi bereizten dira. Alde batetik, ur emari egonkorra duten ibaien ibarrak; urte osoan ura izaten dutenez, lur emankorrak dira eta uztak ureztatu ditzaketenez, **urtean bi uztak ere eman ditzakete**. Bestetik, lehorreko lurak. Lehorreko lur horietan ez dute ureztatze aukerarik, ureztatze presak egin dituzten zenbait tokitan izan ezik (kanal irekien bitartez ureztatzen dute lurra); beraz, euria da uztak ureztatze bide bakarra.

Tigrayn, bereziki, landa-eremuetan, biztanle gehienak **kristau ortodoxoak dira (% 94)**, eta gainerakoak

musulmanak eta, hein txikiagoan, katolikoak dira. Buruzagi erlijiosoen bitartez, erlijioak zuzenean eragiten du etiopiarren bizimoduan.

URRUTIKO LANDA EREMUAK

Topografia dela eta, herritar gehienak bizi diren herri asko urruti daude, eta zaila izaten da herri horietara iristea. Herri gehienetan ez dute argindarra lortzeko aukerarik, **landa eremuko biztanleen % 30ek soilik** dute **sare elektrikoa** eskura.

Herri askotan, era berean, **ez dago ur puntu segururik**; izan ere, askotan, lur gainean zulatutako presa batean bildutako uraz hornitzen dira, eta presa horiek euri-sasoian betetzen dira, baina **urtarrilean eta otsailean lehortu egiten dira**. Puntu horiek arrisku larriak eragin ditzakete osasunean, animalien **kutsadura biologikoaren eraginpean** egoten baitira. Zenbait herritan, putzuak egiten dituzte eta ura eskuzko ponpa bidez ateratzen dute. Putzurik edo lurpeko urik ez duten herrietako biztanleek, presa txiki horietako erreserbak agortzen direlarik, **batez beste 30 minututik 50 minutura bitarteko bidea egin behar izaten dute ura lortzeko. Emakumeei eta neskei** dagokie etxera ura ekartzea, eta ibilbide luzeak egin behar izaten dituzte urrutiko eremuetako putzuetara joateko.

Ur eskasiak bereziki eragiten du hezkuntza komunitatean, hezkuntzaren garapen egokia eragozten duen aldetik; izan ere, ez dira baldintza higieniko-sanitarioak betetzen, ezta giza kontsumorako uraren hornidurako baldintzak ere eta, horren guztiaren ondorioz, **uraren kontsumoarekin eta higiene ezarekin lotutako gaixotasunak agertzen dira**.

Osasun arretari dagokionez, postu medikoetan gaixotasun ez-larriak artatzen dituzte eta osasun zentro bat egoten da hainbat herri biltzen dituen eskualdeko eremu bakoitzean; halaber, lehen mailako arretako ospitaleak eskualdeko herrigune handienetan egoten dira.



EGURALDIA ETA INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA

Tigray eskualdean bertatik bertara **pairatzen dituzte klima aldaketaren ondorioak**, azken urteotan aldatu egin baita ekainetik abuztura bitarteko euri-sasoian izaten zen prezipitazioen eredua, eta prezipitazioak gero eta erratikoagoak dira; hainbat urtetan gertatu izan da **nekazaritzaren premiak betetzeko adina euri egin ez izana, eta horren ondorioz elikagaien eskasia izan dute.**



Landa eremuetan elektrizitatea izateko zailtasun handiak izaten dituztenez, **herritarrek ikatza edo egurra erabiltzen dute otorduak prestatzeko**, eta hori arazo izaten da eskualde erdiaridoetan, zuhaitzen masa ez baita oso ugaria izaten, berez, eta naturaren baliabide horiek baliatzen dituztenean **deforestazioa** areagotzen da, ingurumen orekan kalte larria eraginez.

Inguruan gertatzen den deforestazioarekin loturik, eskualdetik igarotzen diren ibai batzuk larrialdi egoeran daude; izan ere, **ibaiertzeko landaretzarik ez dagoenez babesteko**, euri-sasoian (askotan uholdeak izaten dira) urak ibai bazterreko lurrak arrastatu eta higatzen ditu, eta **urtetik urtera laborantzarako lur emankorrak galtzen dituzte** ibaien ibarretan.

EMAKUMEEN EGOERA

Landa eremuetako eguneroko bizitzan, **emakumeen egitekoa bigarren mailan geratzen da parte-hartzeari eta erabaki komunitarioak hartzeari dagokienez**, oro har, gizonen gain eta, bereziki, buruzagi erlijiosoen gain geratzen baitira eginkizun horiek.

Emakumeek izaten duten arazo garrantzitsuenetakoa bat haurren ezkontza da; izan ere, Etiopia osoan oso zabaldua dago (% 40, datu ofizialen arabera). Ehuneko horren barruan, 15 urtetik beherako neskek ia % 38 osatzen dute, eta hori oso tasa handia da. Kasu gehienetan, neskak nerabezaroan izaten dira ama eta horrek hainbat arrisku eragiten ditu, hala nola fistula obstetrikoa izatekoa.

Era berean, Etioipian, erlijio ortodoxoaren eta musulmanaren arabera, emakumeak ez-puruak dira hilekoa duten bitartean eta, beraz, besteak beste, gurtzarako tokietan sartzeari uko egin behar izaten diote. Tabu hori eskoletan ere sumatzen da; **nesken % 50ek eskolara joateari uzten diote** tabua delako eta, kasu askotan, ez dutelako behar adina baliabide edo ez dagoelako instalazio egokirik.



Landa eremuetako emakumeen analfabetismo-maila % 47 da eta, gizonena, berriz, % 19; alde horren arrazoia da neskak gazte-gaztetatik hasten direla etxeko eta produkzioko lanak egiten. Guztira, % 49 da.

Badira emakume taldeak, hala nola WAT (Women Association of Tigray) eta WDA (Women Development Army) elkarteak; eskualde osoan dute presentzia, eta informazioa biltzeaz gain, erakundeetatik edo GGKEetatik bultzatutako proiektuak egiten eta prestakuntza saioak ematen laguntzen dute.

Oro har, landa eremuetan, **emakumeei eta neskei dagokie etxera ura eta elikagaiak ekartzea**, eta ibilbide luzeak egin behar izaten dituzte urrutiko eremuetako putzuetara joateko. Lurrik ez baldin badute, edo uzta kaskarra izaten denean, gobernuaren

edo GKE handien programen mende egoten dira premia biziko elikagaiak (zereal zakuak, olioak eta abar) lortzeko. Elikagai horiek edo ura lortu behar izatea lan bikoitza da emakumeentzat, etxean egin behar dituzten zaintza-lanei gehitzen zaielako eta, horren ondorioz, gizonezko kideekin alderatuta desabantaila egoeran geratzen dira.

Ondorio gisa, pobrezia-aren intzidentzia eta larritasuna handiagoa da landa eremuetan hiriguneetan baino, eta landa eremu guztietan modu uniformearen banatzen da. Analfabetismoa, GIB-HIESaren inpaktua eta elikagaien segurtasunik eza dira erronka garrantzitsuenak, oraindik ere. Faktore horiek are zorrotzagoak dira emakumeen kasuan eta, kasu askotan, desabantaila egoera nabarmenean geratzen dira lan-merkatuan sartzeko.

Etiopia Utopia Fundazioa Tikal Etiopiako bazkidearekin, REST tokiko GKEarekin (Relief Society Tigray), lan egiten du etiopiar populazioaren beharrak bertatik bertara ezagutzeko eta komunitateei balio erreala emango dieten proiektuak abian jartzeko.

Besteak beste, helburu hauek ditu: etxeko bizimoduak hobetzea, emakumeen jabeakuntza sustatzea erabakiak hartzeko prozesuetan eta erakundeetan emakumeen parte-hartzea areagotzeko, eta, azkenik, Tigrayko pertsonen osasun- eta hezkuntza-egoera hobetzea.



Argazkia: Vicente Ruiz Aguarón

“Pobrezia-aren aurkako borrokan ingurumenaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko. 2. Fasea” (GFA 2019 ERAL 016/01) proiektuaren hezkuntza materiala. Zabalketa Elkarteak eta Tau Fundazioak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobrezia-aren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.

Egileak: Etiopia Utopia Fundazioa Tikal eta Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Etiopia Utopia Fundazioa Tikal eta Vicente Ruiz Aguarón

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina D.L. SS-691-2019

Etiopia Utopia Fundazioaren eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz.

www.etiopiautopia.org www.zabalketa.org

